

105. ALDIZKARIA - 2000ko abuztuaren 30a

• III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

○ E T X A U R I

Behin betiko onespena, Eremu publikoko eta herrilurretako lurzoru, hegalkin eta zorupearen aprobetxamendu berezietako tasak arautzen dituen ordenantzari

Udal honek, bi milako maiatzaren hogeita hamaikan egin bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

"Ordenantza hasiera batean onesteko erabakia apirilaren 28an argitaratu zen, 2000ko 52. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean, eta jendaurreko aldia iragan da, inork haren kontrako erreklamaziorik aurkeztu gabe. Horiek horrela, Etxauriko Udalak, osoko bilkuran bildurik eta boz batez, hau da, legeak eskatzen duen gehiengoa duela, erabaki du:

1. Udal baliabide hauek ordainarazteko ordenantza fiskala behin betikoz onestea:

-Eremu publikoko eta herrilurretako lurzoru, hegalkin eta zorupearen aprobetxamendu berezietako tasak arautzen dituen ordenantza.

2. Ordenantzen testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea".

Argitara ematen da interesatu orok jakin dezan.

Etxaurin, bi milako ekainaren hogeita hiruan. Alkatea, Alejandro Labiano Irujo.

ORDENANTZA, EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO LURZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEAREN APROBETXAMENDU BEREZJETAKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Kontzeptua

1. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. eta hurrengo artikuluetan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100.eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraikiz ezarri da ordenantza hau.

Ordaindu beharraren sorrera

2. art. Prezio publiko hau ordaindu beharra sortzen da horniduren zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek zorua, hegalkina eta zorupea okupatzen dituztenean honako hauetako zerbaitekin: kableak, hodiak, kanalizazioak, biltontziak, arketa eraldagarriak, zutoinak, horma-besoak, banaketa edo erregistro kutxak eta zerbitzu egitearekin ikusteko duten gainerako aprobetxamenduak.

Nork ordaindu behar

3. art. Eremu publikoko edo herrilurretako zorua, hegalkina eta zorupea horniduren zerbitzu publikoak ustiatzeko erabiltzen dituzten enpresek dituzte prezio publiko hauek ordaindu behar.

Oinarriak, tasak eta tarifak

4. art. Tarifak aplikatzeko oinarria udal mugapearen barnean enpresa horiek urtean lortzen duten fakturaziotik heldu diren dirusarrera gordinak dira.

5. art. Horniduren zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek erdiesten dituzten dirusarrera gordinen % 1,5 da aplikatu beharreko tarifa.

Kudeaketa arauak

6. art. Horniduren zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek, aprobetxamendu bereziren bat egin nahi badute, horretarako lizentzia eskatu beharko dute.

7. art. Aprobetxamendua egin ahal izateko obraren bat egin behar bada, enpresek behar den obra lizentzia izapidatu beharko dute.

8. art. Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin ekartzen badu toki entitatearen jabari publikoa suntsitu edo hari kalte egitea, onuraduna, tokatzen den prezio publikoa ordaintzeaz gain, behar dena berreraiki edo konpontzeko gastuen kostu osoa itzultzea beharturik egonen da, baita aurrez zenbateko hori gordailuan uztera ere.

Gordailu hori ukiturik gerta litezkeen balio edo instalazioen ariora eratuko da, Udaleko teknikari batek aldeztu aurretik horiek zenbakatzeko irizpena emanda.

Enpresen aprobetxamenduek halako jarraikortasun edo aldikotasuna badute, hiriko toki desberdinetan izan arren, gordailu orokor bat eratzea hitzar daiteke, horren ondoriozko kudeaketa administratiboa erraztearren. Gordailu hori hitzarmenean zehazten den aldietan berrikusi ahal izanen da, eta aldi horietan aprobetxamenduek sorrarazten ahal dituzten kalteen ariora zenbakatuko da.

Indarra duen arautegia edo lizentziaren baldintzak ez betetzeagatik ezartzen diren zehapenak ordaintzeko xedea ematen ahal zaio gordailuari. Fidantza itzultzeko, aitzinetik aldeko txosten bat beharko da, indarra duen arauteria eta lizentziaren baldintzak hertsiki bete, eta zoladura behar bezala konpondu dela dioena.

9. art. Horniduren zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek, prezio publikoa ordaintzera beharturik badaude, udal mugapearen barnean eskuratzen dituzten dirusarrera gordinen aitorpena, aitzineko hiruhilekoari dagokiona, aurkeztu beharko du hiruhileko guztietan.

Delako aitorpenean, prezio publikoaren zenbatekoa kalkulatu beharko da, ordenantza honetan ezarritako arauari jarraikiz.

10. art. Aitzineko aitorpena aurkeztearekin batera, enpresek behar den prezio publikoaren zenbatekoa ordaindu beharko dute, Herriko Etxean berean edo kasu bakoitzean zehazten den entitatearen bidez.

Arau-haustek eta zehapenak

11. art. Arau-hausteei eta haien zehapenei dagokien orotan Ordenantza fiskal orokorrari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Jasotzen ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritako arauketa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek testua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean osorik argitaratutakoan hartuko du indarra.